

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Beinat Herce Leceta

Zinegotziak

María Arantzazu Iregui Villar
Jose María Herce Isasmendi
Leire Urzelai Letona
Jose Angel Petralanda Gil
Itziar Marfínez Iregui
Iñaki Madinabeitia Elorza
Iker Akizu Olabe
Aitor Urrutia Oyanguren
Juan Luis Merino Sanabria

Idazkaria. Edurne Iturbe Lascurain.

Eskoriatzan, bi mila eta hamabiko maiatzaren 17an, arratsaldeko seiak eta erdietan, Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoan, Beinat Herce Leceta alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udaltzarran, Ohiko bilkuran, gai-zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Cantero jaunak abisatu du ez dela etorriko.

En Eskoriatza, siendo las dieciocho horas y treinta minutos del día diecisiete de mayo de 2012, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión ordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente D. Beinat Herce Leceta ,con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. Excusa su asistencia el Sr. Cantero.

1. AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.

Ondorengo egunetan egindako osoko bilkuretako aktak onartu dira: 2012-04-19 eta 2012-04-24

2.- ALKATEAREN ADIERAZPENAK.

2.1- Hartutako erabakien gaineko informazioa.

2012ko maiatzaren 11ra arte Alkateak hartutako erabakien berri eman eta horien laburpenen kopia banatu da.

Berariaz eman da kontu kredituak aldatzeko 7. espedientea onartzeari buruzko berri. Hona hemen espediente horren laburpena:

7. KREDITU ALDAKETA

KREDITU TRANFERENTZIA PROPOSAMENA

Gastu partidak: transferitu nahi diren kredituak (bajak)

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Gutxipena	Amaierako kreditua
0601.121.121.00.02	Berariazko Osagarria:Adm. Orokorra.	37.976,40	2.160,00	35.816,40
0601.121.451.10.02	Berariazko Osagarria:Kultura.	23.469,75	187,00	23.282,75
0601.121.451.30.02	Berariazko Osagarria:Liburutegia.	23.375,02	687,00	22.688,02
0601.131.451.50.01	Aldi Baterako Pertsonala:Museoa	83.004,29	687,00	82.317,29
0601.121.452.20.02	Berariazko Osagarria: Kiroldegia.	34.502,55	187,00	34.315,55
GUZTIRA ...		202.328,01	3.908,00	198.420,01

Gastu partidak: gehitu nahi diren kredituak (altak)

Partida (*)	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza	Amaierako kreditua
0201.204.121.00.01	Renting:Fotokopiagailua:Adm. Orokorra.			
	Fidantza eratzea e/l:Adm. Orokorra.	0,00	1.920,00	1.920,00
0201.860.121.00.02	Renting:Fotokopiagailua:Kultura.	0,00	240,00	240,00
0401.204.451.20.01	Fidantza eratzea e/l:Kultura.	0,00	166,00	166,00
0401.860.451.20.01	Renting:Fotokopiagailua:Liburutegia	0,00	21,00	21,00
0401.204.451.30.01	Fidantza eratzea e/l:Liburutegia.	0,00	610,00	610,00
0401.860.451.30.02	Renting:Fotokopiagailua: Museoa.	0,00	77,00	77,00

0502.204.451.50.01	Fidantza eratzea e/l:Museoa.	0,00	610,00	610,00
0502.860.451.50.02	Renting:Fotokopiagailua:Kiroldegia.	0,00	77,00	77,00
0405.204.452.20.01	Fidantza eratzea e/l:Kiroldegia.	0,00	166,00	166,00
0405.860.452.20.01		0,00	21,00	21,00
GUZTIRA ...		0,00	3.908,00	3.908,00

* Aurrekontu-partida berriak sortu ahal izango dira

3.- GAI ZERRENDAN HAINBAT GAI SARTZEA BERRESTEA.

Aho batez erabaki da gai zerrendan honako gai hauek sartzea:

- Onartutako eskubideei baja ematea.
- 8. kreditu aldaketa espedientea.

4.- ONARTUTAKO ESKUBIDEEI BAJA EMATEA.

Hazienda batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztien aldeko botoekin, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Baja ematea aurreko ekitaldietan aitortutako eskubide hauei:

(*)KONTZEP/EPEA/ZKIA	ZENBATEKOA (€)	ZERGADUNA	ZERGATIA
2008KDLI0007ZERGA	125,97	JABEKIDEAK.- Hidalga 8	Obra hau ez zen egin
001/201001/950	67,54	Joao FERREIRA JULIO	Ibilgailuaren transferentzia data: 2009/08/05
001201101/959	68,82	Joao FERREIRA JULIO	Ibilgailuaren transferentzia data: 2009/08/05
2011ko Ibilgailuen zerga	133,28	Carmen PEREZ SEVILLANO	Ibilgailuaren baja da: 2012/03/24
2010ko Ibilgailuen zerga	237,99	Construcciones FRIXI	Ibilgailuaren baja data: 2009/11/11
2011ko Ibilgailuen zerga	242,51	Construcciones FRIXI	Ibilgailuaren baja data: 2009/11/11

Bigarrena: Oker kitatutako zerga ordaindu den kasuetan, ordaindutakoa itzultzea.

5.- KREDITUAK ALDATZEKO 8. ESPEDIENTEA.

Kredituak aldatzeko 8. espedientea irakurri da. Kreditu aldaketa hori kreditu gehigarri bidez egingo da eta eragina du Udal honetako aurrekontuan.

Idazkari-kontuhartzailleak egindako txostena irakurri da, non adierazten baitu aipatutako espedientea aplikagarri zaion araudiari egokitzen zaiola, hain zuzen ere, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 34. artikuluan ezarritako beharbizun eta tramiteei.

Era berean, aipatutako espedientea dela-eta idazkari-kontuhartzailleak egindako txostenaren berri eman da. Txosten horretan aurrekontu-egonkortasun helburua ez dela betetzen esaten da eta aipatzen da, hori horrela izanik ere, ez dela beharrezkoa ekonomia eta finantza planik onartzerik 2012ko aurrekontuaren kitapena egin arte, abenduaren 12ko 18/2001 Legea garatzen duen erregelamendua onartzen duen azaroaren 2ko 1463/2007 Dekretuko 21. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Alde batetik, HAZIENDA BATZORDE INFORMATZAILEAREN aldeko txostena eta onarpen proposamena, eta, bestetik, espedientean egindako gainontzeko jarduerak ikusita, Udalbatzarrak, Urrutia jaunak aurka bozkatuta eta Merino jaunaren abstentzioarekin, honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.-UDAL honetan indarrean dagoen ekitaldiko aurrekontuari eragiten dion kreditu gehikuntza bidez kredituak aldatzeko 7. espedientea onartzea, egindako proposamenaren eta ondorengo kapituluko laburpenaren arabera:

AURREKONTU PARTIDA	KONTZEPTUA	KREDITUAK		
		EGUNGOAK	ALDAKETA	BEHIN BETIKOAK
1.0402.481.521.20.01	Diru laguntza: Goiena	0,00	32.066,30	32.066,30
1.0301.226.456.10.08	Ekintzak:Jubilatuen Omenaldia	500,00	4.000,00	4.500,00
1.0502.226.451.50.08	Ekintzak:Museoa	6.000,00	7.650,00	13.650,00
1.0404.226.456.20.08	Ekintzak:Gazteria	9.430,75	700,00	10.130,75
1.0406.226.454.00.06	Jaiak	52.500,00	4.000,00	56.500,00
1.0504.226.462.00.99	Bestelako gastuak:Parte-Hartze	2.500,00	2.000,00	4.500,00
1.0301.227.313.00.34	Gizarteko ikastaroak	0,00	7.000,00	7.000,00
1.0405.219.452.20.01	Mantenimendua:Fotokopiagailuak.Kiroldegi	0,00	400,00	400,00
1.0201.721.121.00.01	Aportazioa:Mankomunitatea.Admon Orokorra	28.600,59	0,46	28.601,05
1.0503.721.322.00.01	Aportazioa:Mankomunitatea.Enplegua	367,47	0,01	367,48
1.0201.421.121.00.01	Mankomunitatea: Admon.Orokorra	45.864,64	0,74	45.865,38
1.0301.227.313.00.13	Mankomunitatea: Ezinduen Garraioa	11.374,94	0,18	11.375,12
1.0503.227.322.00.13	Mankomunitatea:Enplegua	17.414,33	0,26	17.414,59
1.0502.227.751.00.13	Mankomunitatea: Turismo	11.799,06	0,19	11.799,25
1.0201.933.010.00.01	Maileguen amortizazioak	240.070,00	183.801,24	423.871,24
1.0401.622.451.91.01	Santa Ana Komentuko kapera	214.435,87	410.564,13	625.000,00
1.0401.481.451.82.01	Diru laguntza: Atxorrotx ONG	800,00	601,00	1.401,00

Sarrerren kontzeptuak edota gastuen partidak	Baliabidearen kontzeptua (11)	Sarrera handiagoak / gastuetako bajak	Baliabidearen partziala
0201.870.000.00.01	Diruzaintzako gerakina: Kreditu		

	gehigarriak I		653.368,51€
<u>GASTUEN GEHIKUNTZAK GUZTIRA</u>		0,00	653.368,51€

Bigarrena.- Jendaurrean jartzea hamabost egunez nahi duenak erreklamazioak aurkez ditzan. Erreklamaziorik ez balego, erabaki hau behin betiko bihurtuko da, eta espediente honi Aurrekontu Orokorra onartzeko ezarritako gainontzeko tramite berak egin beharko zaizkio.

Urrutia jaunaren boto azalpena (2011ko urriaren 19an egindako osoko bilkuran horrela egitea eskatu zuelako egiten da): *Nik aurrekontuen aurka bozkatu nuen, eta nik ulertzen dut, eta uste dut orduan eztabaidatu zela, hau aurrekontuak aldatzea dela. Orduan esan zen kitapena egin ondoren partidak gehituko zirela. Gogoratzen dut aurrekontuen onarpena momentu horretara arte atzeratzea proposatu nuela, eta orduko nire botoarekin koherentea izateko uste dut kreditu aldaketa honi ezetz esan behar diogula.*

6.- 2011/2012 IKASTURTERAKO HEZKUNTZA PROIEKTUEI DIRU LAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK ONARTZEKO PROPOSAMENA.

Bertaratutako udalbatzarkide guztiek dute Kultura batzorde informatzaileak emandako diktamenaren kopia bat.

Egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztien aldeko botoekin, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- 2011-2012 ikasturterako hezkuntza proiektuei diru laguntzak emateko oinarriak onartzea.

Bigarrena.- Oinarri horiek jendaurrean jartzea 30 lanegunez iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik kontatzen hasita, nahi duenak oinarriak aztertu eta, hala iritziz gero, erreklamazioak jarri edo iradokizunak egin ditzan. Aipatutako epearen amaiera larunbata, igandea edo jaieguna egokitzen bada, epea hurrengo lanegunera luzatuko da.

Hirugarrena.- Iradokizunik edo erreklamaziorik ez balego, araudi hori behin betiko onartutzat joko da bestelako erabakirik hartu beharrik gabe.

Laugarrena.- Alkate jaunari ahalmena ematea araudia onartu ondoren bertan araututako diru laguntzetarako deialdia egiteko eta dagokion gastua baimentzeko.

7.- GIZARTE ZERBITZUETAN DIHARDUTEN ELKARTEENTZAKO DIRU LAGUNTZAK ARAUTZEN DITUZTEN OINARRIAK ONARTZEKO PROPOSAMENA.

Bertaratutako udalbatzarkide guztiek dute Gizarte Zerbitzuetako batzorde informatzaileak emandako diktamenaren kopia bat.

Egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztien aldeko botoekin, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Beraien jarduera gizarte zerbitzuetan garatzen duten elkarteentzako diru laguntzak emateko oinarriak onartzea.

Bigarrena.- Oinarri horiek jendaurrean jartzea 30 lanegunez iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik kontaktzen hasita, nahi duenak oinarriak aztertu eta, hala iritziz gero, erreklamazioak jarri edo iradokizunak egin ditzan. Aipatutako epearen amaiera larunbata, igandea edo jaieguna egokitzen bada, epea hurrengo lanegunera luzatuko da.

Hirugarrena.- Iradokizunik edo erreklamaziorik ez balego, araudi hori behin betiko onartutzat joko da bestelako erabakirik hartu beharrik gabe.

Laugarrena.- Alkate jaunari ahalmena ematea araudia onartu ondoren bertan araututako diru laguntzetarako deialdia egiteko eta dagokion gastua baimentzeko.

8.- GAZTEEI DIRU LAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK ONARTZEA.

Bertaratutako udalbatzarkide guztiek dute Kultura batzorde informatzaileak emandako diktamenaren kopia bat.

Egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztien aldeko botoekin, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Gazteei diru laguntzak emateko oinarriak onartzea.

Bigarrena.- Oinarri horiek jendaurrean jartzea 30 lanegunez iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik kontaktzen hasita, nahi duenak oinarriak aztertu eta, hala iritziz gero, erreklamazioak jarri edo iradokizunak egin ditzan. Aipatutako epearen amaiera larunbata, igandea edo jaieguna egokitzen bada, epea hurrengo lanegunera luzatuko da.

Hirugarrena.- Iradokizunik edo erreklamaziorik ez balego, araudi hori behin betiko onartutzat joko da bestelako erabakirik hartu beharrik gabe.

Laugarrena.- Alkate jaunari ahalmena ematea araudia onartu ondoren bertan araututako diru laguntzetarako deialdia egiteko eta dagokion gastua baimentzeko.

9.- AMUSKARENTZAKO 2012. URTERAKO DIRU LAGUNTZA ETA LAGUNTZA HORI ARAUTZEN DUEN HITZARMENA ONARTZEA.

Gizarte Zerbitzuetako Batzorde Informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta batzarkide guztien aldeko botoekin Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- AMUSKA EMAKUME TALDEAri 2.000 euroko diru laguntza ematea, indarrean dagoen aurrekontuko 0303.481.313.70.01 partidaren kontura, ondorengo ekintzak finantzatzen laguntzeko

- Hitzaldiak, zine-foruma	400,00 €
- Ikastaroak	800,00 €
- Ikustaldi kulturalak.....	350,00 €
- Mantenimenduko gastuak.....	450,00 €

Bigarrena.- Emandako diru laguntzari lotutako baldintzak arautzeko helburuarekin hitzarmena egitea erakunde onuradunarekin.

Hirugarrena.- Berehala ordaintzea emandako diru laguntzaren % 60a, eta Alkateari ahalmena ematea gainontzeko % 40a ordaintzeko erakunde onuradunak justifikatutakoan diru laguntza hitzarmenean jasota bezala erabili duela.

10.- OLAZAR JUBILATUEN ELKARTEARENTZAKO 2012. URTERAKO DIRU LAGUNTZA ETA LAGUNTZA HORI ARAUTZEN DUEN HITZARMENA ONARTZEA.

OLAZAR JUBILATUEN ELKARTEAK diru laguntza eskatu du 2012an antolatu gura dituen ekintzek sortutako gastuak finantzatzeko.

Gizarte Zerbitzuetako Batzorde Informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta batzarkide guztien aldeko botoekin Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- OLAZAR JUBILATUEN ELKARTEARI 3.000 euroko diru laguntza ematea ondorengo ekintzak finantzatzeko 2012n

Ikastaroak

- Hilabete kulturala	586,00 €
- Ahalmen kognitiboa suspertzeko tailerra	300,00 €

Egun bateko txangoak

- Bi irteera	424,00 €
--------------	----------

Ekintzak

- 80 urtetik gorako jubilatuena omenaldia	651,50 €
- Urtarrileko txokolatada	17,00 €
- San Pedro jaietako merienda	546,50 €
- Santo Tomasetako txistorrada	250,00 €
- Elizateetako martxa	50,00 €
- Mahai jokuak eta dantza	145,00 €
- Jubilatu elkartearen bilerak	30,00 €

Bigarrena.- Hitzarmena sinatzea OLAZAR JUBILATUEN ELKARTEAREKIN diru laguntza hau emateko baldintzak arautuko dituzten arauak jasotzeko.

Hirugarrena.- Gastua onartzea indarrean dagoen aurrekontuko 0301.481.456.10.01 partidaren kontura.

Laugarrena.- Berehala ordaintzea 1.800 euro, eta Alkateari ahalmena ematea gainontzeko % 40a ordaintzeko erakunde onuradunak justifikatutakoan diru laguntza hitzarmenean jasota bezala erabili duela.

11.- ESKORIATZAKO BILDUK AURKEZTUTAKO MOZIOA UDAL EUSKALTEGIEN AFERARI BURUZ.

Alkate jaunak ondoren osorik transkribatzen den mozioaren xedapena irakurri du:

UDAL EUSKALTEGIEN AFERARI BURUZKO MOZIOA

Udal Euskaltegiek, azken garai hauetan bizi duten diru murrizketa dela eta Eskoriatzako Udalak ondorengo adierazpena onartu eta ondorioak Jaurlaritza eta HABEri helarazi nahi dizkio:

Udal Euskaltegiak, azken urte hauetan, diru-laguntza gutxiago jasotzen ari dira. Murrizketak, Udal batzuetan handiak izan dira eta Udalak, Euskaltegi hauen biziraupena ziurtatu nahi dutelako, diru murrizketen zama bere gain hartu behar izan dute. Ondorioz, Udal bakoitzak, Udal Euskaltegien lana eta jarraipena ere egokitu behar izan du, erabaki propioak hartuz. Epe motzean, murrizketek jarraitzen badute, Udal Euskaltegien jarraipena arriskuan egon liteke.

Udal Euskaltegiak 80. hamarkadan sortu ziren. Helduen Euskalduntze eta Alfabetatzea helburu zuelarik. Harrezkero, Euskararen normalizazioari laguntzeko (gainontzeko euskaltegiekin batera, Aek, Hika, ...) eta erdaldunak euskarara biltzeko lan asko egin dute.

HABEk lagundu ditu diruz eta ordura arte ez zegoen Euskaltegi publikoen sarea sortu zuten. Udalek ere diruz laguntzen dituzte, irakasleriaren kontratazioan, gizarte asegurantzaren gastuetan, e.a ...

Jaurlaritzaren gobernu aldaketarekin batera, Udal Euskaltegiak diru-laguntzen murrizketak pairatzen hasi ziren. Jaurlaritzak, Nazio Hizkuntza Euskararekin zer egin asmo duen eta zein estrategia erabiliko duen argi erakusten du. Bere estrategia suntsitzailearekin, Udal Euskaltegiak itoarazi nahi ditu diru-laguntzak murriztuta. Argi dago, egun, zama ekonomikoa direla eta finantziarioaren zama Udalen gain utzi nahi duela. Jaurlaritzak eta HABEk eskuak garbitu nahi dituzte.

Euskaltegien geroa ziurtatzeko, Udalak beraiei ez dagozkien erantzukizunak hartzea behartu nahi dituzte, beste behin ere itoarazi nahi dituzte. Udal Euskaltegiak, publiko izaerarekin jaio ziren eta Euskal Herria euskalduntzen jarraitzeko duen erantzukizunagatik, publiko izaten jarraitu behar dute eta Jaurlaritzak, bere osotasunean lagundu behar ditu diruz.

Argi dago, auzi honetan, Euskara Nazio Hizkuntza dela erdigunean dagoena. Jaurlaritzaren eta PSEren estrategia politikoaren baitan kokatzen den hizkuntza politikari erantzuten diola HABEren diru murrizketak. Euskaltegi publikoen bideragarritasunean duen ardurari uko egin eta hau Udalen bizkar utzi nahi izatea. Eskaintza publikoa eta sektore publikoaren kaltetan, pribatizazioaren bidea bultzatuz, lanpostu publikoak desagerraraziz.

Ondorioz:

Helduen Euskalduntze eta Alfabetatzean Jaurlaritzak eta HABEk duten ardura garbia da: Udal Euskaltegien finantziarioa bere gain hartu behar dute, publikotasuna ziurtatu eta doakotasunaren bidean urratsak eman.

Udalen ardura politiko, herrietako egoera soziolinguistikoa kontuan izanik, normalizazioa helburu duten egitasmo eta ekintzak sustatzea eta herritarrak laguntzea izan behar du, ez dakitenek euskara ikas dezaten bultzatzeko eta euskaldunak alfabetatzeko. Diru-laguntza politika herrietako eskaintza aztertu eta egokitu ondoren, ahalbideratzeko neurriak bultzatuz.

Tokian tokiko euskalgintza eta eragile politiko eta sozialak bat eginik, euskararen egoerari buruzko eztabaida soziala ireki eta kaleratu behar dugu. Guztion artean, Euskararen beharrezkotasuna bultzatu eta European euskararen herria berrezarri behar dugu. Euskararen aldeko kontzientziario eta sentsibilizazio lana berpiztu behar dugu, hizkuntzaren defentsan indarrak eta ahaleginak bilduz.

Udal Euskaltegiek, euskalduntze alfabetatzeari ekarpen handia egin diote eta etorkizunean ere, Euskal Herri Euskalduna lortu arte, gainontzeko mugimenduekin elkarlanean (AEK, IKA, ...), aliantzak eta sinergiak bilatuz, erdaldun euskaltzaleak bildu, saretu eta euskalduntze prozesuan aritzeko bideak bultzatuko dituzte.

Euskal Hezkuntza sistemaren barruan Helduen Euskalduntze Alfabetatzea txertatu behar da eta publikoa eta doakoa izan behar du. Ezin dugu diru murrizketarik onartu eta ezin dugu Udal Euskaltegi bakar bat ere ixten utzi. Euskaltegi bat ixtea, herri bateko eskola bat ixtea bezala da eta hori eskandaluzkoa eta larria litzateke. Onartezina!

Udal honek, honako puntu hauetan oinarritutako adierazpena onartzen du

1.- Udal Euskaltegien inguruan sortu den auzi honen erantzule eta arduradun politikoak Jaurlaritza eta HABE dira. Urteetan zehar Udal Euskaltegiek egindako lana kontutan izanik, hauen etorkizuna arriskuan jartzerik ezin dugu onartu.

2.- Udal honetatik, Jaurlaritzari eta HABEri, behar diren baliabide ekonomiko eta politikoak jartzeko, dagozkien arduraz erantzuteko, eta zama ekonomikoa Udalen gain ez uzteko eskatzen diegu.

3.-Ezin dugu, Euskarari eraso txikienik egiten utzi eta onartu. Euskal Herri osoari eta bereziki euskararen aldeko mugimenduari, euskararen aurkako erasoei aurre egiteko deia luzatu nahi diegu.

4.- Eskoriatzako Udalak, Udal Euskaltegien auziari, ardura politiko osoz eta herritarrekin batera erantzuteko konpromisoa hartzen du. Helduen Euskalduntze Alfabetatzearen mugimenduak atzerapenik izan ez dezan, behar diren neurriak hartuz.

5.- Erabaki honen berri: Jaurlaritzari, HABEri, Euskalgintzari eta herri osoari emango zaio eta bakoitzak arduraz jokatzeko eskatzen diegu.

Eskoriatzan, 2012ko Apirilak 17
Bozeramailea: Beñat Herce Lezeta

Bertaratutako udalbatzarkide guztien aldeko botoekin, Udalbatzarrak mozioa onartu du.

18:55ean Madinabeitia jauna etorri da bilkurara.

12.- EZKER ANITZA-IZQUIERDA UNIDAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: ESKORIATZAKO UDALAREN ATXIKIMENDUA HIRUGARREN ERREPUBLIKAREN ALDEKO UDAL SAREARI

Merino jaunak ondoren osorik transkribatzen den mozioaren xedapena irakurri du:

MOZIOA:

ESKORIATZAKO UDALAREN ATXIKIMENDUA HIRUGARREN ERREPUBLIKAREN ALDEKO UDAL SARERA

ZIOEN AZALPENA

Mota guztietako errepublikanoek, II. Errepublikaren legatu sozial, kultural eta emantzipatzailearen oinordekoak, Justizia, Askatasuna, Berdintasuna eta Senidetasuna idealekin konprometituak, gaurko Konstituzioak Francoren diktaduraren zuzeneko oinordekoa den monarkia egoera espainiarraren hiritarrei inposatzen dien modua gure arbuiazte irmoa adierazte dugu. Halaber, ezin dezakegu onar Estatuaren forma egokiago aukeratzeko posibilitatea hiritarrei ukatzen denik.

Gaurko Parlamentuko Monarkiak ez ditu babesten ditugun idealak jasotzen. Gaurko Estatu espainiarerako, erregimen errepublikanoa izango litzateke eskubideetako eta askatasun demokratikoetako defentsarako marko onena, eta Estatu osatzen duten herri desberdinen autodeterminazioa eta autogobernua ziurtatzeko ezinbesteko tresna, baita bide bat, ekonomia kapitalistak eskubide sozialen garapen eraginkorrari inposatzen dizkion mugak gainditzeko. Errebindikazio hauek definitzen ditugu hurrengo ideia indarretan:

Askatasunenegatik eta demokrazia parte-hartzailearen alde.

Lana et soldata duin, egonkor eta eskubide osoen alde.

Guztionezko etxebizitza eskuragarriekin eta guztionezko beste politika ekonomiko baten alde, espekulazioaren eta ustelkeriaren kontra.

Osasun zerbitzu publiko eta kalitatezkoen alde, eta Hezkuntza publiko, laiko, berdintzaile eta eraginkorraren alde.

Internazionalismo solidarioagatik, gerraren kontra eta bakearen alde.

Herrien autodeterminazioaren alde.

Guztionezko berdintasunaren alde.

III. Errepublikaren lorpena bultzatzeko, III. Errepublikaren aldeko udal-sarea osatu da, Estatu osoaren 30 udal baino gehiagotara elkartzen duena.

Ezker-Anitza-IU-ren udal-taldetik osoko bilkuraren begirunerako hurrengo akordioa proposatzen dugu:

AURRENA.- Gaurko Estatu modeloa ahituta jotzea, eta Konstituzioaren erreforma eskatzeko hiritarretarako, eta referendumeko deialdirako deia egitea, non hiritarrak boto demokratikoez, Estatu Espainiarerako nahiago duten Estatu forma, erabakiko dute.

BIGARRENA.- III. Errepublikaren aldeko Udal Sarera Udalaren atxikimendua aldarrikatzea Errepublikarantzko prozesu eratzaillea bultzatzeko, Konstituzio Espainiarrak 169rako 166ko bere artikuluetan aurreikusten dituen mekanismo demokratiko eta baketsu guztiak erabiliz.

HIRUGARRENA.- Akordio hauen berri Eusko Legebiltzarrari eta Gorte Nagusiei ematea.

Ezker Anitza-IU

Juan Luis Merino Sanabria

2012ko maiatzak 17

Hitza eman ondoren, udal taldeetako bozeramaleek hitz egin dute talde bakoitzeko zinegotzien botoa justifikatzeko.

Ondoren, Urrutia jaunak esandakoa transkribatzen da, 2011ko urriaren 19an egindako osoko bilkuran berak horrela egitea eskatu zuelako:

Nik galdetu nahiko nuke ea hitzartu daitekeen, zerbait gehitu, kendu edo jarri daitekeen, edo, aldiz, itxita dagoen (Merino jaunari galdetu dio). (Merino jaunak erantzun dio mozio alternatibo bat aurkeztu dezakeela, aurkeztutako mozioa hori delako). Ulertzen dut erantzuna ezetz dela. (Merino jaunak esan dio ondo ulertu duela). Ondo ulertu dut, beraz. Orduan, ni abstenitu egingo naiz. Nik hitzartzea proposatzen nuena lehenengo puntua zen, lehenengo puntua aldatzea, honako hau esateko: "Dei bat egiten dugu konstituzioari

beharrezko aldaketa egiteko Euskal Herria existitzen dela eta erabakitze eskubidea duela aitortzeko. Herri bezala dagozkigun eskubideak aitortuko ez digun estatuaren edozein eredu, eredu agortua da". Hori da nik proposatu nahi nuena, baina, itxita baldin badago, gu abstenitu egingo gara. Eta, abstenitu egingo gara, Espainiar estatuaren parte izatera behartuta gauden bitartean, ba, guri berdin zaigulako estatuaren forma, monarkia izan edo errepublika izan, berdin zaigu. Oinarrizko baldintza, "sine qua non" baldintza, da biak demokratikoak izatea, nire ustez, perfektuagoak eta hobekak izan daitezke, baina, badira; estatu monarkiko batetik – egungo Estaturuaren lotsak gorabehera- estatu errepublikano batera aldatzeko hori litzateke baldintza; bestela, uste dugu ez dela aldaketa handirik, eta ontzat eman beharko litzatekeela Josep Plak esaten zuena "eskuineko espainiar baten antzekoena ezkerreko espainiar bat da". Hasi gaitzke errepublika eta monarkiaren arteko aldeei buruz -gehien bat teorikoak- eztabaidatzen, baina, ez naiz luzatuko. Esaten duzu herrien autodeterminazioa aipatzen dela; bai, orokorrean hitz egiten da, zein herriren autodeterminazioari buruz ari den zehaztu gabe. Egia bada ere, estatua osatzen zuten herrien eskubideen aitortzea jasotzea ez dela errespetatu den eta praktikan jarri izan den baldintza. Sobietar Batasuneko eta Jugoslaviako kasuak ikusi besterik ez dago. Ez du ezer bermatzen, eta bere garaian, autodeterminazio eskubidea erabili nahi izan zutenean, gerra zibila izan zuten. Nazioarteko zuzenbide publikoak esaten duena da herrien autodeterminazio eskubidea menderapen koloniala jasaten duten herrientzako dela. Hala ere, estatu bakoitzaren barne politikak egoki irizitakoan estatu guztien status quoa aldatzeko aukera ere jasotzen du. Ez da gauza bera Txekoslovakian, edo Estonian, edo Eslovenian gertatu dena edo Quebecen gertatu dena. Eta egia esan, azken hori da guretako nahiko gureken eredu. Zehaztuz, guk hori gura dugu, erabakitze eskubidea, eta ez herriei buruzko aipamen orokor bat; Euskal Herriak erabakitze duen eskubidea, eta gero, herri bakoitzak bere bizitza egin dezala. Nafarroaren gaia aipatu duzunez, ez dakit nola bideratu gura duzun. Ez dakit Nafarroaren gai hori -guk, bere garaian, horren alde egin genuen- kontraesan edo inkoherentzia bezala ulertzen duzun, ikuspuntuaren arabera baita. Zuk uste baduzu Nafarroa euskal proto-estatu antzeko bat dela historian, bere burujabetasunarekin eta bere eskubideekin, abertzaleok defendatzen duguna defendatzea ez dut uste inolako inkoherentziarik denik. Baina, guk, Eusko Alderdi Jeltzaleak, Nafarroaren gainera beti defendatu izan dugu Euskadi kontzeptua. Ez batzuek orain ulertzen duten modu murriztailean, Euskal Autonomia Erkidegoa, baizik eta lurralde guztiekin. Eta gure ustez herri honek bere etorkizuna erabakitze eta Pirinioetako alde bietako euskal lurraldeak hartuko dituen Euskadi izeneko estatu demokratiko propioa eraikitze eskubidea du. Egia da batzuek Nafarroa defendatzen dutela, Nafarroako banderak jartzen dituztela eta ez dutela ikurrinari jartzen Aberri Egunean; eta horrek zerbait esan gura du. Eta zentzu horretan, egon daitezkeen kontraesan bakarra, eta batzuek argitu behako luketena, da ea egun Nafarroari egiten zaion erreferentzia erreferentzia monarkikoa den, ulertuta Fernando Katolikoak Nafarroa konkistatu zuenean beste errege batzuk kanporatu zituela. Uste dut gure kasuan ez dagoela kontraesanik edo inkoherentziarik. // Bakarrik pare bat gauza zehazteko. II. Errepublikako konstituzioak herriek aske erabakitzeaz hitz egiten du eta abar; independentzia ere eska zitekeela. Kontua da eskatu baino zerbait gehiago egin daitezkeen, hau da, bai edo ez erabaki. Eta sistema erabaki libreko federalitatea baldin bada, ez dakit non dagoen arazoa guk proposatutako dozena erdi lerro horiek hitzartzeko.

Bozeramaleek hitz egin ondoren, mozioa bozkatu da, eta ez da onartu, hona hemen emaitza: 3 abstentzio (Urrutia jauna, Madinabeitia jauna eta Akizu jauna) boto 1 alde (Merino jauna) eta bertaratutako gainerako zinegotziek, aurkako botoa.

"Galde-eskeak" puntuarekin hasi aurretik eta AJA-ren 91. artikulua ematen dituen eskumenak erabiliz, Alkate jaunak, Merino jaunak proposatuta, Udalbatzarrari galdetu dio irakaskuntzaren kalitateari buruzko mozio bat aztertzearen premia.

Hitza eman ondoren, Merino jaunak azaldu du hezkuntza eta osasun arloan Espainiako gobernuak gaur hartu dituen neurriak direla-eta, bere taldea irakaskuntzaren kalitatearen alde eta murrizketan aurka proposatu gura duen mozioa aurkezten ari dela hainbat udaletan. Presazkotasuna arrazoitzeko esan du datorren ekainaren 10ean Euskal Eskola Publikoaren eguna dela, eta egun hori baino lehen aztertzea komeniko litzatekeela.

Esan da egun hori baino lehen ezohiko osoko bilkura egongo dela “atez atekoa” aztertzeko, eta mozioa ere egun horretan aztertzea proposatu da.

Merino jaunak aurkeztutako mozioa bilkura horretarako uztea egokia izan daitekeen edo ez eztabaidatu da. Eztabaidan hurrengo ezohiko osoko bilkurarako eguna jarri da: ekainaren 4a.

Mozioaren presazkotasunaz bozkatu da, eta ez da presazkotzako jo, izan ere, 4 abstentzio izan dira (Alkate jauna, Urrutia jauna, Martinez andrea eta Madinabeitia jauna) eta gainerakoek aurka bozkatu dutenez ez da lortu presazkotzat jotzeko eskatzen den quorumaren gehiengo osoa.

13.- GALDERAK ETA ESKARIAK.

13.1.- Bere garaian Merino jaunak webguneari buruz eta udal langileen prestakuntzari buruz egindako eskaerak.

Merino jaunak gogorarazi du apirilaren 19ko osoko bilkuran, galderen eta eskaeren txandan, ondorengo aztertu zela: (aktaren zatia transkribatzen da)

12.1.- Merino jaunak eskatu du idatziz jaso gura duela azkenengo osoko bilkuran egindako bi eskaeretak erantzunak: webguneari dagokiona eta Udal langileen prestakuntzari dagokiona.

Alkateak erantzun dio horrela egingo dutela.

Alkateak erantzun dio erantzuna idatziz bidaliko zaiola. Hala ere, esan dio, aurreratzen diola lehenengo eskaeraren erantzuna Parte-hartze batzordearen apirilko bileraren aktan duela, eta bigarrenari dagokionez, jakinarazten dio udal gobernuko kideak uste dutela ez dela beharrezkoa eskatutako prestakuntza. Hori esanda, hurrengo astean erantzuteko konpromisoa hartu du.

Merino jauna: ez dut akta irakurri. Leire, zer erabaki da webguneari gainean?

Urzelai andrea. Ez dut testua zehazki gogoratzen, ez daukat hemen.

Alkateak erantzun dio berak baduela, eta bilkura amaitutakoan erakutsi diezaiokela. Era berean, jakinarazten dio testu hori batzordea egin zen egunetik aurrera erabiltzea erabaki zela, aurreko testuak ez direla aldatuko lehen hartutako erabakien ondorioz egindakoak direlako, eta beraz, batzordeak ezin dituela aldatu.

13.2.- 4 ordenagailu erostea

Merino jaunak galdetu du zergatik erosi diren Parte-hartze batzordearen akta batean jasotzen diren 4 ordenagailu.

Erantzun zaio informatika ekipoak berritzeko AIDEren laguntzarekin egindako plan bat dela, eta plan horretan lehentasunak identifikatu direla ekipo bakoitzaren egoeraren eta udalak erabilgarri duen diruaren arabera.

13.3.- Mundumiraren aurrekontua.

Merino jaunak galdetu du ea zenbat kostatuko den Mundumira. Alkateak erantzun dio Eskoriatzari 6.000 eta 7.000 euro bitartean. Kopuru zehatza hurrengo astean jakingo dela.

13.4.- STOP DESAHUCIOS MAHAIA

Merino jaunak jakinarazi du datorren maiatzaren 19an bere taldeak STOP DESAHUCIOS MAHAIA jarri behar duela 500.000 sinadura jasotzeko asmoz, beraien etxeetatik kaleratutakoek zorra etxebizitzaren truke kitatu ahal dezaten eskatzeko. Eta hori bilera honetan dagoen edozeini ere gerta dakionez, mahaira hurbildu eta sinatzera animatzen ditu.

13.5.- ALE IU-REN ADIERAZPENA LGTB-FOBIAREN AURKAKO NAIZOARTEKO EGUNARI BURUZ.

Merino jaunak ALEAS IUren adierazpenaren zati bat irakurri du maiatzaren 17a Homofobiaren, Lesbofobiaren, Transfobiaren eta Bifobiaren Nazioarteko Egunari buruz. Ondoren transkribatzen da irakurri duen adierazpen zatia:

Sexu orientazioagatiko eta genero identitateagatiko diskriminazioa errealitate gordina da, guztion konpromisoarekin baztertu beharrekoa. Horregatik, LGTBfobiaren aurkako nazioarteko egun honetan, ALEAS IUtik beste behin ere berdintasunaren eta sexu eta afektibitate aniztasunarekiko errespetuaren alde egiten dugu, lesbianen, gayen, transexualen eta bisexualen eskubideekiko gure konpromiso aktibo eta militantea berretsiz. Era berean, argi eta garbi salatzen dugu LGT pertsonen jasaten duten diskriminazioa eta tolerantziarik eza, eta dei egiten diegu gizarteari eta erakundeei guztion eskubideak errespetatu eta defenda dezaten eta LGTBfobiaren aurkako beharrezko borrokan jarrai dezaten.

13.6. MUSEOEN NAZIOARTEKO EGUNA.

Bihar museoen nazioarteko eguna dela gogorarazi ondoren, Merino jaunak galdetu du ea zer egin behar den Eskoriatzan.

Erantzun zaio ez dagoela aurreikusita ezer berezirik egiterik, zabalik egongo dela Mundumira delako.

Eta beste gairik ez dagoenez, amaitutzat eman da bilkura 19:25ean. Eta nik, idazkariak, egiaztatzen dut.

1.- APROBACIÓN DE ACTAS DE SESIONES ANTERIORES.

Por encontrarlas conformes son aprobadas las actas de las sesiones celebradas el 19 de abril de 2012 y el 24 de abril de 2012.

2.- COMUNICACIONES DE LA ALCALDÍA

2.1.- Información sobre acuerdos adoptados.

Se informa de las resoluciones adoptadas por la Alcaldía hasta el día 11 de mayo de 2012 haciéndose entrega de una copia del extracto de las mismas.

Se da cuenta expresa sobre la aprobación del expediente de modificación de créditos N° 7, cuyo resumen es el que sigue:

MODIFICACIÓN DE CRÉDITOS N° 7

PROPUESTA DE TRANSFERENCIA DE CRÉDITOS

Partidas de gasto: créditos que se quieren transferir (bajas)

Partida	Denominación	Crédito inicial	Reducción	Crédito final
0601.121.121.00.02	Complemento específico: Admon General.	37.976,40	2.160,00	35.816,40
0601.121.451.10.02	Complemento específico: Cultura.	23.469,75	187,00	23.282,75
0601.121.451.30.02	Complemento específico: Biblioteca.	23.375,02	687,00	22.688,02
0601.131.451.50.01	Personal temporal: Museo	83.004,29	687,00	82.317,29
0601.121.452.20.02	Complemento específico: Polideportivo.	34.502,55	187,00	34.315,55
TOTAL ...		202.328,01	3.908,00	198.420,01

Partidas de gasto: Créditos que se quieren incorporar (altas)

Partida (*)	Denominación	Crédito inicial	Incremento	Crédito final
0201.204.121.00.01	Renting:Fotocopiadora:Admon General	0,00	1.920,00	1.920,00
0201.860.121.00.02	Constitución fianza e/l:Admon General.	0,00	240,00	240,00
0401.204.451.20.01	Renting:Fotocopiadora:Cultura.	0,00	166,00	166,00
0401.860.451.20.01	Constitución fianza e/l:Cultura.	0,00	21,00	21,00
0401.204.451.30.01	Renting:Fotocopiadora: Biblioteca	0,00	610,00	610,00
0401.860.451.30.02	Costitución fianza e/l: Biblioteca.	0,00	77,00	77,00
0502.204.451.50.01	Renting:Fotocopiadora: Museo.	0,00	610,00	610,00
0502.860.451.50.02	Constitución fianza e/l:Museo.	0,00	77,00	77,00
0405.204.452.20.01	Renting:Fotocopiadora:Polideportivo.	0,00	166,00	166,00
0405.860.452.20.01	Constitución fianza e/l: Polideportivo.	0,00	21,00	21,00
TOTAL ...		0,00	3.908,00	3.908,00

* Podrán crearse nuevas partidas presupuestarias

3.- RATIFICACIÓN SOBRE INCLUSIÓN DE ASUNTOS EN EL ORDEN DEL DÍA.

Por unanimidad se acuerda ratificar la inclusión de los siguientes asuntos dentro del orden del día:

- Baja de derechos reconocidos.
- Expediente de modificación de créditos nº 8

4.-BAJA DE DERECHOS RECONOCIDOS.

De conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Hacienda y el voto favorable de todos los corporativos asistentes, el Pleno ACUERDA:

Primero: Dar de baja a la siguiente relación de derechos reconocidos en ejercicios anteriores.

(*)CONCEPTO/PLAZO/Nº	CANTIDAD (€)	CONTRIBUYENTE	MOTIVO
2008KDLI0007ZERGA	125,97	COPROPIETARIOS- Hidalga 8	No se realizó la obra
001/201001/950	67,54	Joao FERREIRA JULIO	Fecha de transferencia del vehículo: 2009/08/05
001201101/959	68,82	Joao FERREIRA JULIO	Fecha de transferencia del vehículo: 2009/08/05
